Agintariak eta Langileria

Oposaketak eta Lehiaketak

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

6068

EBAZPENA, 2009ko urriaren 13koa, Lehendakaritzako idazkari nagusiarena, sail honetan hutsik dagoen lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdi publikoa betetzeke uzten duena.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 46.2.c) artikuluan agindutakoarekin bat etorriz, eta sail honetan hutsik dagoen lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdi publikoa iragarriz Lehendakaritzaren idazkari nagusiak 2009ko uztailaren 8an emandako Ebazpeneko (uztailaren 17ko EHAAren 136 zk.) laugarren oinarrian ezarritakoaren arabera, honako hau

XEDATU DUT:

Lehenengoa.– Bete gabe uztea lanpostu hau: goikargudunaren idazkaria, 520010 kodea, 174 dotazioa, Euskadik Bruselan duen ordezkaritzan.

Bigarrena.– Administrazio-bideari amaiera ematen dion ebazpen honen aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Lehendakaritzako idazkari nagusiari, jakinarazpena jaso eta hilabeteko epean; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, ebazpen hau EHAAn argitaratzen den egunaren hurrengotik, bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko urriaren 13a.

Lehendakaritzako idazkari nagusia,
JOSÉ MANUEL SALINERO FEIJOO.

Autoridades y Personal

Oposiciones y Concursos

PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

6068

RESOLUCIÓN de 13 de octubre de 2009, del Secretario General de la Presidencia, por la que se declara desierta la convocatoria pública para la provisión, por el sistema de libre designación, de un puesto de trabajo vacante en este Departamento.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 46.2.c) de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca, y en la base cuarta de la Resolución de 8 de julio de 2009 (BOPV n.º 136, de 17 de julio) del Secretario General de la Presidencia, por la que se anunciaba convocatoria pública para la provisión por el sistema de libre designación, de un puesto de trabajo vacante en este Departamento.

RESUELVO:

Primero.– Declarar desierta la convocatoria de la plaza de Secretario/a de Alto Cargo, código 520010, dotación 174, en la Delegación de Euskadi en Bruselas.

Segundo.– Contra la presente Resolución, que agota la vía administrativa, podrá interponerse recurso potestativo de reposición ante el Secretario General de la Presidencia, en el plazo de un mes, a partir del día siguiente al de su publicación en el BOPV, o recurso contencioso-administrativo, ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de la publicación de la Resolución en el BOPV.

En Vitoria-Gasteiz, a 13 de octubre de 2009.

El Secretario General de la Presidencia,
JOSÉ MANUEL SALINERO FEIJOO.